

Ariketa hauek Ikasbileko 1856566 atazan aurkituko dituzu.

Audioaren erreferentzia: JJ-15 Giltzak

Mailak: B2-C1

Funtzioa: lehengo eta oraingo ohituren berri eman, aldaketen arrazoiak azaldu

Adierazpide linguistikoak: lexikoa (*gaua, parranda, gazte, dibertsio, taberna, kontzertu...*), konparaketak (*lehen...orain, berriz...*) aditza (*bizkaiera...*)

Azken ekintza: *Zuen gazetako dibertitzeko moduak nola aldatu diren aztertu eta ondorioak atera.*

EGITEKOAK

1-Ikaskelara etorri aurretik egitekoa. Gaztetako ohiturak zertan aldatu dituzten aztertze, aurrena, galdetegi bat osatuko dute ikasleek. Gaztetxoei egotzi ohi zaizkien ohitura horietatik zeintzuk egiten zituzten beraiek, eta urteak igarota, egiten ez dituztenak aukeratu dituzte.

1. *Goizaldera arte kalean ibili (gaupasak egin)*
2. *Musika-talde gustukoeneren kontzertuetan eszenatokiaren aurrean saltoka jardun*
3. *Motxilatxo hartuta asteburua abentura bila atera*
4. *Orduak eman lagunekin bideojokoetan*
5. *Festaz-festa Euskal Herria ezagutu*
6. *Koadrilarekin astebururo parrandan ibili*
7. *"Botiloia" egin herriko parkean*
8. *Diskoteka eta pubetan dena emanda dantzan aritu*
9. *Garajeen edo lokalean festak antolatu*
10. *Neskatan / mutiletan egin*
11. *Herriko jaietan goitibeheran ibili*
12. *Besterik:*

Ondoren, ikaskelako mintza-saioa prestatzeko, bi galdera hauei erantzungo diete:

- *Zein arrazoi dituzu orain ez egiteko gazetetan egiten zenituen gauzak?*
- *Zure dibertitzeko erak aldatu badira, nola ordezkutzen dituzu gazteagoa zinenekoak?*

2- Ikaskelan amaitu ondoren egitekoak. Bizkaieraz esandako adizkiak euskara batuan jarri, hutsuneak betetzeko ariketa baten bidez.

1- Entzun aurretik

1.2 Mezuak




Elkarrizketaren **1. zatia** (00:00-01:04) entzungo dute. Jonek Joneren mezua ez erantzuteko izan duen arrazoiak zein den esan ondoren, aurreko gauean Jon zertan ibili ote zen inguruko hipotesiak egingo dituzte talde txikitan.

Zuzenketa: Jon kontzertu batean egon zen eta ondoren kalean ibili zen oso berandu arte (berak "liada" hitza erabiltzen du).

⚠ Elkarrizketan hainbat pista dituzte: Jon goiz osoa lotan egon da, eztarria hartuta dauka, berandu oheratu zen...

2- Entzun bitartean




2.1 Jonen gau mugitua



Elkarrizketaren **bigarren zatia** entzun eta Jonek gaua zertan eman zuen esango dute.

Zuzenketa: Jon kontzertu batean egon zen eta ondoren kalean ibili zen oso berandu arte (berak "liada" hitza erabiltzen du).






2.2 Adinak badu garrantzia

   Jonen eta Joneren iritzi desberdinak aztertzeko, helduaroan parrandan ibiltzeari buruzko baieztapenak egia ala gezurra diren esango dute.

Zuzenketa: Egia: 2,3,4,5, 7,8 / Gezurra: 1,6

3. ENTZUN ONDOREN

3.1 Dibertitzeko erak

    Ikasgelako dibertitzeko erak nola aldatu diren aztertuko dute talde txikitan  ariketan egindakoa partekatuz. Ondoren, ondorio bakar batean bildu esan dituztenak eta talde handian komentatu. Azkenik, denen artean ideia nagusiak jaso ondorio gisa.

Adibide hau izango dute azalpena osatzeko:

“Gaztetan gauzez kalera irten eta taberna guztiak itxitakoan, etxepeko kafetegia ireki arte gelditzen nintzen kalean. Bapo gosalduta ez nintzen sekula joaten etxera. Orain, berriz, zerbait hartzera ateratzen naizenean, tabernetako giroan lekuz kanpo nagoela iruditu eta alde egiteko gogoia etortzen zait. Inoiz ateratzen banaiz, afaltzera joateko izaten da eta goizeko ordu bietarako, asko jota, etxean izaten naiz...”

BAKARKA EGITEKO ARIKETA

3.2 Bizkaierako aditz-formak

Jone bizkaieraz esan dituen hainbat aditz forma azpimarratuta dituzu esaldi hauetan. Jarriko al dituzu batuako eran?

1. Jon, gauza bat galdetu nahi deutsut. Esadazu ondo etortzen jatzun deitzea (dizut / zaizu)
2. Beno, agian kanpoan zagoz (zaude)
3. Baina ahal dozunean, deitu (duzu)
4. Goiz osoa kanpoan egon zara? Telefono mezuari ez deustazunez erantzun (didazu)
5. nikori animaliak izugarri gustatzen jako (zaizkio)
6. Gaua eta parranda neurritz gain baloratuta dagoz (daude)
7. Nik ez dot hori esan, alferkeria ematen deustala bakarrik (dit / didala)
8. zu baino 20 edo 30 urte gazteagoak direnekin taberna berdinetan ibiltzea, niri, behintzat, ez jata gustatzen (zait)

TRANSKRIPZIOA

Jon eta Jone II. Giltzak(15)

W- JONE: Kaixo Jon. Zelan?

W-JONE: Gauza bat galdetu nahi nizuke. Esadazu ongi datorkizun deitzea.

W- JONE: Beno igual kanpoan zaude baina al duzunean “deituidazu”.

JON: Kaixo Jone

JONE: Aupa Jon.. joder zer ahotsa daukazun...

JON: eztarria badakizu

JONE: Besterik gabe galdera bat egiteko deitzen nizun.

JON: Esan

JONE: Kartera galdu dudala uste dut. Eta akaso zure kotxean (autoan) edo azaldu ote den galdetzeko... badaezpada ere ...

JON: ez dakit ba. Jaitsiko naiz eta begiratuko dut.
 JONE: Goiz osoan kanpoan izan zara?
 JON: Ez.
 JONE: Telefono mezuei ez diezunez erantzun..
 JON:Lo nengoen.
 JONE: Lo?
 JON: Bai, atzo berandu samar oheratu nintzen... beno, kotxera noa (autora) eta esango dizut.
 W- JON: Zure kartera nire kotxean (autoan). Esaidazu nora eraman.
 W-JONE: Joango naiz ni bila.
 W- JON. Lasai, eramango dizut. Nora?
 W-JONE: Atzo laga ninduzun tokian?
 W-JON: Okei.
 JONE: Kaixo Jon.
 JON: Hementxe kartera.
 JONE: Eskerrik asko.. buf! eskerrak azaldu den, bestela badakizu kreditu txartelak anulatu (indargabetu), karnetak berriro egin...
 JON: Kriston putada da bai...
 JONE: Gidari alboko eserlekuan zegoen?
 JON: Ez.. atzean, maleteroan (maleta-lekuan)...seguru hartzaren kaxa sartu genuenean erori zitzaizula...eta? Gustatu al zaio?
 JONE: Bai, bai, honezkero etxeak Cabarceno dirudi... animaliak izugarri gustatzen zaizkio... kalean zakur bat ikusi eta haren atzetik korrika hasten da...
 JON: Aitak beti kontatzen zuen, ni haurra nintzenean, behin ikastolen aldeko manifa baten ostean, sekulako istiluak izan zirela eta Gipuzkoa plazako ahateen putzura sartu nintzela...
 JONE: Uretara?
 JON: Keba, ahateak harrapatzera... kontua omen da hura poliziaz bete eta aita nire bila etorri zenean Jose! Jose! deitzen zidala... Jon esatera ez zelako ausartzen... zuk uste?
 JONE: Jajajajaja
 JON: Eta hemen inguruan bizi zara?
 JONE: Bai, hantxe 13. zenbakian.. Aizu Jon ederrak begi-zuloak dituzu ez?
 JON: Atzo kontzertu batera joan nintzen eta azkenean badakizu... liada
 JONE: Nik ezingo nuke... gauez aspertu egiten naiz....
 JON: Ba zu garai batean ni baino askoz golfagoa (alprojagoa) zinen...
 JONE: Ba aspaldi ez naiz irten.. ezta gogorik ere. Gaua eta parranda sobrebaloratuta (neurritz gain baloratuta) daude. Baina argi dago zuk oraindik beti-gazte sindromea daukazula
 JON: Eta zuk Señora sindromea, no te jode...
 JON: Dibertitzeak eta parrandan ateratzeak heldutasuna kentzen dio bati edo zer demonio?
 JONE: Nik ez du hori esan...alperkeria ematen didalako besterik ez... eta askotan ez dakit, zu baino 20 edo 30 urte baino gazteagoak direnekin taberna berdinetan ibiltzea... niri behintzat ez zait gustatzen...
 JON: Zu erdi moja bihurtu zarela. Merkel esaten dizute eta gustatu egiten zaizu...
 JONE: Ni beste moduetara dibertitzen naiz...
 JON: Bai, badakit, lasterketak, espining-a... baina beti mozorroa kendu gabe... kontrolik galdu gabe..
 JONE: Ba bai... kontrola galtzen duen jende larregi (gehiegi)dago munduan.
 JON: Eskerrak badagoen bai... denetatik behar du... kontrola galtzen dutenak... eta giltzak galtzen dituztenak..